

Mahalako erroen oihartzuna

1

1)

Leaburu, dotoreziaz, Tolosa eta Gaztelu arteko gainalde batean aurkitzen da. Gipuzkoako ingurunean beste herrigune bat gehiago dirudi. Denboraren joan etorriaren aurrean lasai eta bare, bere inguruan, inoiz, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Baina hori ez da egia. Gipuzkoako herri zahar hau gertaera sinestezinen lekuko izan da, eta antzinako eraikuntzen arrastok, oraindik, historiaren oihartzuna zabaltzen jarraitzen dute.



1
1

1) L'ECHO DES RACINES DE MAHALA

LEABURU, se présente, avec élégance, sur une hauteur située entre TOLOSA et GAZTELU. Il enrichit l'espace territorial du GIPUZKOA d'une commune supplémentaire. Devant les aléas et surs des temps, elle se maintient calme et tranquille, dans son environnement, comme si, jamais, rien ne s'était déchaîné dans son environnement.

Mais ceci n'est pas vrai; le pays arrosé fut le terrain d'événements incroyables. Et les vestiges des anciennes constructions, aujourd'hui, nous amènent à poursuivre la publication de la vie et de l'histoire.

Erromes, bidaiari eta merkatari askoren epizentroa izan da Leaburu: ezinbesteko pasabidea eta beharrezko geralekua. Izan ere, beharragatik izaten ziren artatuak Leaburuko Maalako ospitalean.

Pasabide hau Natarroa eta itsas portuen arteko harbide nagusia zen. Jerusalem Lur Santua amets zuten milaka erromes igarotzen ziren bertatik. Gorritiko gaztelu zaharraren aldame netik pasatu ondoren iristen ziren Uli eta Ulizarren mendi-hegalalara. Gaztelu herribildua zeharkatu eta Txispiriko amildegia jaitsi ondoren, Maala zuten zain. Orduko ospitalea egungo baserria da. Euskal Herrian lau haizetara ezaguna den Mahala, baserriko produktu naturalengatik eta euskal kulturaren eta kirolarien babesle izateagatik.



21 - LEABURU fut l'epicentre de bien de pelerins, voyageurs et marchands: une voie de passage inévitable, qui entraînait un champ de bataille méconnu. Mais qu'il en soit, les mercenaires étaient secourus dans l'hôpital de MAHALA de LEABURU.

Cette voie de passage était majeure dans les relations entre la Navarre et les ports maritimes. Par ailleurs, les pèlerins qui revenaient de la Terre Sainte et Jérusalem passaient par ici.

Après être passés près du vieux château de GORRITI, ils abondaient les pentes des montagnes d'ULLI et ULLIZA. Après avoir traversé le hameau de GAZTELU et descendu le précipice de TXISPIRU, MAALA se présentait comme leur gardien. L'Hôpital de l'époque était la campagne d'aujourd'hui.

Au Pays Basque MAHALA est connu aux quatre vents, dû par ses produits naturels de la campagne et par son souci de préserver la culture basque et ~~les~~ les sports tels jeux traditionnels.



3/) Eraikin honek deiadarka jarraitzen du, bere ondoretasun historikoagatik. Udaletxeko eta parrokiako erregistroetan 'Maala' izena agertzen da. Nazaret-eko Jesusen hizkuntzetako batean, hebrear hizkuntzan, 'ahula' edo 'gaixoa' esan nahi du. Bada, ordea, beste lotura bat egiten duen historialaririk ere. "Maala, Magdalenaren laburdura". Hari honi tiraka, inguruko erreka izenarekin egiten dugu topo: Mala-errea.

Denboraren bidaiak ibiltarien ondora garamatza, berriro, eta bidegurutzean, San Sebastian ermitak aztarna berri baten gainean jartzen gaitu. San Sebastian: Kristoren soldadu bilakatu zen Erromako enperadoreen guardia pretoriarra.

31- Le présent ouvrage se veut un appel à connaître le patrimoine historique.

Dans les registres municipaux comme paroissiaux, apparaît le nom de "MAHALA".

Dans l'une des langues de ~~l'époque~~ Jesus de NAZARETH, dans la langue hébraïque, ce nom signifie "feuille" ou "jeune d'esprit".

Mais, il y a par contre une autre bien que font valoir les historiens. "MAHALA" serait une contraction de "MAGDALENA". En tirant sur ce fil, il fait corps avec le nom du ruisseau proche "MALA-ERREKA".

Les voyages de l'époque nous amènent auprès des voyageurs, plus récemment, et dans le carrefour, nous trouvons sur le vestige nouveau de l'ermite SAINT SEBASTIEN. SAINT SEBASTIEN : un garde prétoire de l'empereur Romain devenu soldat du Christ.

4/ Arrastoek Maala ospitalea testuinguruan jartzen dute, eta ozen, tenplarioen garaikide ziren Erdi Aroko ordenaz hitz egiten dute: Jerusalemgo San Joan Ospitaleko Zaldunen Ordenaz. Tenplarioak eta ospitalarioak monjeak eta Kristoren gerlariak ziren; Maria Magdalenaren jarraitzaileak, eurek eraikitako elizek erakusten duten bezala. Baina balantzak, bi ordenen arteko desberdintasun nagusia aztertzen duenean, alde batera egiten du nabarmen kulunka: sendagaietarako jakintza, ospitalarioen ezaugarria zen.



4/ les vestiges de ~~MAALA~~ nous situent dans le contexte de l'hôpital MAALA, et, par suite ils nous parlent de l'ordre des TEMPLIERS qui assurément au Moyen Âge le patronage du site: l'Ordre des Chevaliers de l'hôpital de Saint-Jean de Jerusalem. Les Templiers et les Hospitaliers étaient maîtres et guerriers du Christ: les fidèles de Marie Madeleine, comme le prouvent les églises qu'ils ont eux mêmes édifiées. Mais en balance, quand on examine

la différence majeure entre les deux ordres, le fleau penche clairement d'un côté: la science du soin, était l'apanage des hospitaliers.

5) JERUSALEMGO SAN JOAN OSPITALEKO ZALDUNEN ORDENA

(5)

1084. urtean, Lehen Gurutzada (1095-1099) hasi baino urte gutxi batzuk lehenago, Napoliko Erresumako merkataritza batzuk ospitale bat eraiki zuten Jerusalem. San Joan Bataiatzailearen izenpeko ospitale hau Hilobi Santuaren elizatik gertu zegoen. Gertutasun horrek eman zion ordenari izena: Jerusalemgo San Joan Ospitaleko Zaldunen Ordena, ondoren, San Joan Ospitaleko Zaldunak edo Ospitaleko zaldunak bezala ere deitua.




5

5) - L'ORDRE DES CHEVALIERS HOSPITALIENS DE SAINT JEAN !

En 1084, quelques années avant la Première Croisade (1095-1099), quelques marchands originaires du Royaume de NAPLES créèrent un hôpital à JERUSALEM. Cet hôpital, ~~déterminé~~ connu sous le nom de JEAN LE BATAILLIER, demeurait près de l'église de ST SEPULCRE. Cette proximité donna son nom à l'ordre : l'Ordre des Chevaliers de l'hôpital de ST JEAN de JERUSALEM, par la suite, les Chevaliers de l'HOPITAL ST JEAN, ~~et~~ les Chevaliers de l'HOSPITAL furent aussi leurs dénominations.

6) Lehen Gurutzadaren garaipenak ospitale gehiagoren eraikuntza ekarri zuen, Lurralde Santu-rako bidearen inguruetan. Ordena eremu horietara zabaldu zen, baina sendagile izaerari mili-tar eta monje izaera gehitu zioten, praktikara eramanez.

Bake garaian, gurutze zuria eramaten zuten kapa beltzaren gainean. Gerra garaian, gurutze zuria ze-raman kapa, gorria zen. Lurralde Santuko garaipenaren eta Mediterraneo inguruko gerlen txanpona-ren beste aldea ezagutu zuten Saladinorekin. Egipto eta Siriako sultanak gurutzatuak birrindu egin zi-tuen 1187an. Jerusalem galdu ondoren, ordenak Palestinako Akre hirian aurkitu zuen gotorlekua. Akre-ko San Joan galdu ondoren, Txiprera joan ziren eta hemendik Rodas uhartera. Bertan egon zi-ren 1310etik 1522ra bitarte. Otomandarren indarrak, ordea, Maltako uhartera errefuxiatu zituen (1530-1798). Ospitalarioek uhartearen izena hartu zuten orduan, Maltako ordena bilakatu. Jazarpe-nak ez zuen amaierarik izan, ordea, 1798an, Napoleon Bonapartek Maltako uhartea bereganatu bai-tzuen. Leku aldaketa hauek ordenaren egoitza nagusia Italiara eramane zuten, egun mantentzen du-ten Erroma hirira. Sorreratik errege, noble eta elizaren babesak izan zuten ospitalarioek, eta han eta hemen, euren ondasunak pilatu zuten joan ziren.



6) Les victoires de la première croisade entraî-nèrent la construction de plus d'hospitales, dans l'environnement des chemins de la Terre Sainte. L'ORDRE s'étendit dans ces terri-toires, mais la pratique fut que la fonction de soigner fut supplantée par les fonctions guerrières et moniales.
 Pendant les périodes de paix, ils portaient la croix blanche au dessus de la croix noire, en période de guerre, le capes qui portait la croix noire et aut rouge.
 Avec le ~~victoire~~ de la Terre Sainte SALADIN, ils commencent un autre côté de la méditerranée de

la Terre Sainte et des monnaies de guerre du ponton de la Méditerranée. Les Sultans d'Égypte et de Syrie pulvérisèrent les Croisés en 1187. Après avoir perdu JERUSALEM, les Ordres s'édifièrent un château fort sur la ville d'ACRE en Palestine. Après avoir perdu St Jean d'ACRE, ils partirent à CHYPRE et de là à l'île de RHODES. Ils demeurèrent sur place de 1310 à 1522.
 Les forces des Ottomans les firent se réfugier, à la suite, dans l'île de MALTE (1530-1798). Les HOSPITALIERS prirent alors le nom de R. O., devenant l'Ordre de MALTE. Mais la répression ne fut pas pour autant terminée. Napoléon Bonaparte en 1798 réta-blit l'île de MALTE.
 Les changements de siège, fut que le demeure principale de l'Ordre fut transporté en ITALIE et maintenant aujourd'hui à ROME.
 Dès l'origine, les Hospitaliers avaient en le soutien des rois, des nobles et de l'église, et, si et là, leurs richesses allèrent en s'empauvrissant.

7 Nafarroako Erresuman, XII. mendea amaitzerako, ordenak 12 enkomienda edo lurralde militar zituen. Hurrengo mende amaierarako 14 herri, 21 eliza eta oinordean jasotako 250 eremuren jabe ziren. Tolosako Arrameleko San Joan eliza, adibidez, Induraingo enkomienda ospitalariora loturik egon zen. Egun, Arrameleko Kristo Santua Leaburuko elizan dago. Eta Leaburun, berriro ere Maala ospitalea agertzen zaigu; historia liburu eta artxiboetan mendea joan mendea etorri agertzen den bezala:

7



7


7/ Dans le royaume de Navarre à la fin du XII^e s., les Ordres comptaient 12 ^{Commanderies} ~~seigneuries~~ ou leignions multaires. A la fin du siècle suivant (XIII^e), ils étaient propriétaires de 14 villages, 21 églises et de 250 propriétés recueillies par héritage. Par exemple, l'église ST-JOAN d'ARRAMELE

à TOLOSA était rattachée au couvent hospitalier d'INDURAIN. Aujourd'hui, le Christ-Saint d'ARRAMELE se trouve dans l'église de LEABURU.

OR de LEABURU, à nouveau, le Repital de MAALA nous apparaît aussi; comme les siècles passés, les siècles ~~devenus~~ apparus dans les livres d'histoire et les archives.

8/

- 1261. urtean, ordena sortu eta 177 urtera, Gipuzkoako eta Nafarroako muga arazozen harira, Mahala lapurreta, bahiketa eta erreskateen zurrunbiloan nahasirik suertatu zen. Ospitalearen inguruko lehen idatzietako bat da. "Urte horretako maiatzaren 1ean Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako ordezkariak elkartu ziren. Bertan salatu zenaren arabera, Corbaran Bidaurre Gorritiko gazteluko gobernadorea buru zuten gerrilari arbizuarrek Lizartza erasotu zuten. Ondoren Mahalara joan ziren: 5 sargardo upel txikitu zituzten; mahai-zapiak eta tresnak, eta 2 kapa lapurtzearekin nahikoa ez eta bi gizon bahitu zituzten. Hauek Gorritiko gaztelura eramanak izan ziren. 400 marabediko erreskatea ordaindu ondoren askatuak izan ziren".



8/

8/ En l'an 1261, 177 années après la fondation de l'Ordre, dans le but problématique de la frontière entre GIPUZKOA, et NAVARRE, au milieu de tourbillon mélangeant, idem, peneurs d'usage et autres maffaites, surmont ~~MHALLA~~
 C fut l'un des premiers évènements qui eurent leur provenance de l'Hospital.
 "En ce jour de l'mai, les représentants de -Gipuzkoa, Araba et Navarre, se sont réunis.
 "Comme il n'y avait été déjà résolu, Corbaran -Bidaurre, le gouverneur du Château de Gorriti, -chef des guerriers, fut attaqué par les -"arbizues" à LIZARTZA. À la suite, ils se -rendirent à MAHALA: ils détruisirent -5 barrages de cidre; le bûcher de l'ally et -les instruments; et 2 capes orlées, ne -leur suffirent pas, ils prirent deux hommes et -d'usage. Ceux-ci furent amenés au château de -Gorriti. Ils furent libérés après le paiement -d'une rançon de 400 marabeds.

9)

- 1425. urtean, martxoaren 19an, Mosen Juan Amezqueta Senpereko Jaunak Leaburuko bizilagunekin hitzarmena sinatzen du: herriko bizilagunek jaun horrek Mahalan duen errota erabiltzeko baimena izango dute aurrerantzean. Uzta-alearen hamaseirena ordaindu beharko dute errentan, eta errotaren balizko konponketen kostuaren erdia bizilagunen gain geratzen da.

9) - En l'an 1425, le 19 mars, a MOSSE, Jean d'AMEZQUETA, Seigneur de S. Pès, signe un traité avec les Habitants de LEABURU: les Habitants du village auront désormais l'autorisation d'usage du moulin que celui-ci (le seigneur) possédait à MAHALA. Ils devront s'acquitter d'une rente représentant un seizième des grains produits moutus, et la moitié du coût de réparation et d'entretien du moulin restera à la charge des Habitants.

10)

- 1502ko ekainaren 18an, Juana Salazarrek Leaburuko doorea eta Mahala baserria itzultzea eskatzen dio Tolosako Otsoa Martinez Zaldibiari, auzi bidez. Seme-alabekin bere Senpereko gazteluan zen bitartean okupatuak izan zirela gaineratzen du edukitza-aginduaren igorleak, hau da, Juana Salazarrek.

10/19



10/ En l'an 1502, le 18 Juin, par un procès, Jeanne SALAZAR, reclame à Olsoa Marling Zaldibia de TOLOSA la restitution de la tour de LEABURU et de la campagne de MAHALA. L'immense du contenu de cet acte a causé Juan SALAZAR, prétend que ces lieux avaient été occupés pendant le temps qu'elle se trouvaient avec ses fils et filles au château de ST PIERRE.

11/

- 1511. urtean, abuztuaren 18an, Frantziako eta Nafarroako lurretan ondasunak dituen Juan Chaconek, Mahalaren jabeak, Leaburuko kontzejua auzi bidean jartzen du, 1425. urteko errotaren inguruko hitzarmena ez betetzeagatik.

12/

- 1577an, Mahala baserriko maizterra den Leaburuko Joanes Goietxek Gazteluko Domingo Azpillagaren alde emandako obligazioa-gutuna agertzen da, 18 dukat eta bi idiren truke.



10
-

11/ En l'an 1511, le 18 août, Juan CHACON, parmi les richesses princières qu'il possède en France comme en Navarre, se trouve être propriétaire de MAHALA, entame un procès au Conseil du Comte de LEABURU au motif que celui-ci n'a pas respecté depuis 1425 le traité convenu.

12/ - L'an 1577, apparaît une lettre-obligation émise par Joanes GOIETXU, de LEABURU, affermé de la campagne de MAHALA, envers Domingo AZPILLAGA, de GAZTELU, moyennant 18 ducats et 2 bœufs.

(3) - 10 urte beranduago, 1587ko ekainaren 13an, Azkoitiko Madalena Oñaz alargunak Ibarako Alexandro Barrena apaiza hautatzen du Leaburuko erretoretzarako. Bartolome Amezketa erretore hil berriaren lekua hartzen du Barrenak. Madalena Oñazena da Leaburuko Mahala etxea.

(4) - 1659ko urriaren 2an, ordainagiri batek Mahalan egindako berrikuntzen berri ematen du. Martin Argarate agertzen da jabego ordaintzaile bezala. Lanen arduradun: Matias de Zuzola Floreaga y Loiola.



13) 10 ans plus tard en l'an 1587, le 13 Juin. la veuve Madalena OÑAZ, d'AZKOITIA, choisit Alexandre BARRERA d'IBARRA, pour être le curé de LABURUA-BARRERA, succède à Bartolomé AMEZKETA, le curé récemment décédé. Madalena OÑAZ est le propriétaire de la maison MAHALA de LABURUA.

14, l'an 1659, le 2 octobre, un billet à ordre révèle une récente réparation effectuée à MAHALA. Martin ARGARATE apparaît comme le répondant du propriétaire. Le responsable de l'œuvre: Matias de ZUZOLA FLOREAGA y LOIOLA

15/- 1/2/3/4 argazkiak: Egungo Mahala baserrian, oraindik garai bateko
elementu arkitektonikoak mantentzen dira.

12



12

15/ Photos 1/2/3/4: Dans la ferme actuelle
MAHALA, aujourd'hui encore, des éléments
architecturaux d'une époque subsistent